

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

15-4-30 14.ALEA

2015,
inbertsio ahalmena
berreskuratuz

4. ORR. ►►

AHTk
agortutako
iturriak
3. ORR. ►►

400 urte
herri aitortzatik
7. ORR. ►►

Korrika
argazkitan
11. ORR. ►►



Ud-
EDITORIALA

Ez dadila azkena izan

15 ale joan dira Plazaberriren lehenak argia ikusi zuenetik. 2011ko Irailean lehen alea atera ostean, huts egin gabe, hiru hilean behin zizurkildarren eta Udalaren topaleku izan da aldizkari hau. Komunikazio eta parte hartze batzordean landutako ideia izan zen eta bertako 4 kazetarik eraman dugu aurrera aldizkaria, borondatez. Helburu argia izan du hasieratik: Batetik, eta nagusiki, Udala egiten ari zenaren berri herriarri ematea, herriarrek iritzia sortu eta esku hartzeko aukera gehiago izan zitezen. Eta bestetik, herriko taldeen ahotsa jasotzea eta batean edo bestean nabarmentzen ari diren herrikideen berri ematea.

Ez genuen beti asmatuko, baina eginga dakoaren balantze duina izan delakoan, 4 urteetako gora beheren berri izan nahi duenak Plazaberriren aleetan aurkituko du horren isla. Legealdi hondarreko ale honetan, desio bat dugu: Ez dadila azkena izan. Udalean dagoena dagoela, informazioan atzera ezin dela egin uste dugu. Aldizkari honekin edo antzeko batekin, informazio bide batekin edo bestearekin, dagoena hobetu egin behar da, ez okertu. Ezin dugu itzuli Udala egiten ari zenaren berri ez genuen garaietara.

AIZTONDO
Zerbitzuen Mankomunitatea

Zizurkilgo
gizarte
zerbitzuen
atea



Ya se han publicado 15 ejemplares desde la primera edición de Plazaberri. Desde que en septiembre de 2011 viera la luz el primer ejemplar, cada tres meses esta publicación se ha convertido en un punto de encuentro entre los y las zizurkildarras y el Ayuntamiento. Idea surgida en la comisión de comunicación y participación,

cuatro periodistas locales la han llevado a cabo de forma voluntaria. Desde su inicio ha tenido un objetivo claro: por una parte, dar a la ciudadanía información sobre el trabajo del Ayuntamiento, con el fin de crear opinión entre las y los zizurkildarras y facilitar así su participación; y, por otro lado, recoger la voz de los agentes sociales y dar cuenta de los

vecinos y vecinas que destacan aquí y allá.

Probablemente no siempre hemos acertado, pero creyendo que el balance ha sido digno, quienes quieran conocer lo acontecido en el municipio durante estos cuatro años tienen en las páginas de Plazaberri su reflejo. Llegado el fin de esta legislatura, nuestro deseo es

que no sea este el último ejemplar. Quien quiera que esté en el Ayuntamiento, creemos que no se pueden dar pasos atrás en lo que a información se refiere. Con esta publicación o con otra similar, el objetivo debe ser avanzar. No podemos volver a los tiempos en los que no sabíamos que sucedía en el Ayuntamiento.

ALBISTEA

Agortutako iturriak, AHT-ren beste kalte bat

AHT-ko obrak hasi aurretik Udaleko teknikariek iragarri bezala, lurpeko iturri naturaletan eragin nabarmena izaten ari dira lanak.

"Herri askotan ari da gertatzen eta Zizurkilen ere bai. Mendeetako iturri naturalak agortu dira", azpimarratu du Aitor Sarasua nekazaritza zinegotziak. Zizurkilen 3 kasuren berri bederen badu Udalak. "Nagusiena, etxe gehienei eragiten dielako, Areta ingurukoa da. 8 etxek iturri naturala zuten, agortu egin dena. Kasu honetan gainera, eskrituratua zuten iturria da, alegia paperetan jasota dago eta Ura agentzia ere jakinaren gainean zegoen". Iaz iraila aldera konturatu ziren ur emaria asko urritzen ari zela. "Neguko euriteen zain izan dira ea onera etortzen zen ikusteko eta azkenean frogatu dute ezetz, iturri hori agortuta dagoela. Ondoren, Udalerako jo dute laguntza eske eta guk gure aldetik ahal duguna egin dugu: Zizurkil eta Adunako Udalak idatzi bana

«Iturriak agortu diren 3 kasuren berri du Udalak»

bidali dugu ur konfederaziora eta erantzun zain gaude une honetan".

Ez da iturria agortu zaion kasu bakarra. Beste kasua Urkixu baserrikoa da, Elbarrenan. "Haiei ere agortu egin zaie iturria. Kasu honetan ordea, ez zuten eskrituratuta eta beraz, zailagoa da irtenbidea, obretako enpresak eta Jaurilaritzak eskuak garbituko dituztelako".

Kaltea egina

Noski, ura ez da desagertzen, baina ez da erraza izango iturri horiek berreskuratzea. "Normala den bezala, iturria galdu duten herritarrek berriz ere ur natural hori eduki nahi dute. Baina zundaketak egin



eta ura bilatzen hasiko al dira orain enpresetakoak? Kaltea eurek egin dute eta bidezkoa litzateke, baina diru asko gastatu behar da horretarako eta dirua beste gauzetarako dute horiek", kexatu da Sarasua. Den den, erantzunaren zain dago Udala. "Areta inguruko etxeen kasuan behintzat, eskrituratuta egonda, erantzuna eman beharrean daude derrigor".


Bada Zizurkilen azken kasu bat ere, Fraisoro nekazal eskolako. "Kasu honetan Udalak ez du zuzenean berririk izan. Jaurilaritzak kudeatzen duenez bai AHT-ko obra eta bai Fraisoro bera ere, pentsatzen dugu estali egin nahi izan dutela. Dakiguna da egunero bi edo 3 kamioi zisternetan ekartzen dietela ura".

Manantiales sin agua, otra consecuencia del TAV

Como ya advirtieron los técnicos del Ayuntamiento, las obras del TAV han secado manantiales centenarios. "En Zizurkil tenemos constancia de 3 casos. El más importante, afecta a 8 caseríos", confirma el concejal de medio ambiente Aitor Sarasua. El Ayuntamiento ha enviado un informe a la

confederación hidrográfica del Ebro y está a la espera de respuesta. "Los que han perdido dichos manantiales quieren recuperarlos, pero eso implica realizar sondeos y nuevos encauzamientos, es decir, dinero. Sería de justicia que los que han destruido se hicieran responsables de arreglar el

daño, pero nos tememos que no va a ser así", lamenta Sarasua. En el TAV hay millones de euros "pero no para las personas directamente afectadas".



“Aurtengo inbertsioek hainbat behar asetuko

Egoera ekonomikoari itzuli bat emanda, 3.309.009 € inbertsioetara bideratu ditu Udalak

Martxoaren 13an onartu zituen udalbatzak urteko aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin (PSE ez zen azaldu); martxoaren 26an egindako batzarrean aurkeztu zituzten herritarren aurrean. Datu bat azpimarratu zuten bertan: Inbertsioetarako aurreikusi den diru kopurua legegintzaldiko handiena da, alde handiz gainera. “Udalean sartu eta egin ge-

nituen lehenengo aurrekontuetan baino 500 mila euro gehiago gastatuko ditugu inbertsioetan”, gogorarazi du Joxe Mari Luengo alkateak. Inbertsio ahalmen honetara iristeko bi faktore aldatu dira legegintzaldi hasieratik hona: “Alde bate-tik, udalak zuen zorra erdira jaitsi dugu, (3 milioi eurotik 1,7 milioi eurora) eta ondorioz, honen amortizazioarako bideratu beharreko dirua ere jaitsi egin da; bestetik,

«Egindako lanari esker 2012an baino 500.000€ gehiago erabili dezakegu inbertsiotarako»

Aldundiak fondo foraletik udalerriei egiten dien ekarpena ere igo egin da”, azaldu du alkateak. Pozik dauka udal ordezkariak, egoera

ekonomikoa tarteko, orain arte egin ezin izan dituzten inbertsioak egiteko moduan baitaude 2015ean. “Dirulaguntzen menpe egon gara orain arte. Ez ginen subentzionatu gabeko inbertsioak ordaintzeko gauza, eta herriarentzat urgentziazkoak ziren proiektuak atzeratu egin behar izan ditugu. Aurtengo egingo diren lanekin ordea, herrian dauden behar handienetako batzuei erantzuna emango zaie”.

“Las inversiones de este año darán respuesta a muchas necesidades del pueblo”

El presupuesto anual asciende a 3.309.009 euros de los cuales 700.000 se invertirán para dar respuesta a las necesidades que más urgen. “Al bajar la deuda a la mitad (de 3,3 millones a 1,7 millones) y al aumentar la partida de dinero anual que entrega la Diputación del fondo foral, hemos ganado en capacidad de inversión, lo cual nos permite invertir la cantidad más elevada de dinero de esta legislatura, 500 mil euros más que en el año

2012”, explica el alcalde Jose Mari Luengo.

La mayor parte, la cantidad de 300.000 euros, de las cuales 250.000 serán subvencionados por la Diputación, se invertirán para acondicionar la nueva biblioteca en los locales comerciales de la Plaza Joxe Arregi. Está previsto que para finales de año abra sus puertas. Otra inversión que mejorara el día a día del pueblo será la cubierta que se instalará en la misma

plaza. “Tiene un presupuesto de 150.000 euros, pero lo financiaremos mediante un renting, que nos permite pagar a plazos. Esta cubierta será de metacrilato y tendrá una superficie de 300 metros cuadrados”.

“Pero cuando hablamos de obras que urgen, nos referimos a obras como el ascensor de Atxulondo. Sabemos que el acceso a la casa de cultura actualmente no es el adecuado, pero su presupuesto elevado y las

pocas subvenciones que ha habido estos años para este tipo de obras han hecho que el proyecto se retrase”, admite el alcalde, y anuncia que este verano instalarán el ascensor con un presupuesto de 170.000 euros.

Otras inversiones serán la renovación del parque de la escuela P. M. Otaño, las huertas públicas, el tratamiento antideslizante del puente entre Villabona y Zizurkil, los nuevos vestuarios de Dane-na, etc.

kin herrian ditugun o dira”

euroko aurrekontutik 700.000 euro

Aiztondo mailako liburutegia

Plazako etxebizitzan azpiko lokaletan egokituko da haur liburutegia eta Aiztondo mailako helduen liburutegia hartuko dituen kultur azpiegitura berria. Inbertsiorik potoloena izango da. 300.000 euroko aurrekontua du, baina 250.000 euro Aldundiak martxan jarritako aurrekontu parte hartzaileen bidez lortu da. “Eskualde bakoitzean 500.000 euro herritarrek nahieran inbertitzeko aukera eman zuen Aldundiak iaz. Tolosaldean Aiztondo mailako liburutegia izan zen proiektu bozkatuena eta diru kantitate potoloa lortu genuen. Esan beharra dago, herritarrek izan zirela parte hartze prozesu horretan bozkatu eta liburutegiarentzako finantziazioa lortu zutenak, beraz, beraiei esker izango dugu liburutegi berria”, gogorarazi du Luengok. Aurrreratu duenez, orain ari dira udal ordezkari eta teknikariak arkitekto talde batekin liburutegiari forma ematen: “Leku dinamiko bat nahi dugu, liburutegia eta ikasteko lekua ez ezik, kultur mailako ekintza



Joxe Mari Luengo alkatea inbertsio nagusiak egingo diren Joxe Arregi plazan.

ezberdinak hartzeko prestatuta egongo den gune bat”. Urte amaierarako irekitzea da asmoa.

Joxe Arregi plazako estalpea

2011ean Joxe Arregi plazako proiektuaren aurkezpena egin zuten batzarrean. Bertan herritarrek proiektuari ekarpenak egin zizkien. Beste gauza batzuen artean estalpea eskatu zuten herritarrek batzar hartan. “Orain arte ezin izan dugu estalpea egin diru kon-

tuek ematen ez zutelako, baina proiektuan kontenplatu genuenez, plaza egiterako garaian dena prest jarri dugu estalpearen instalakuntzarako”. Aurrekontua 150.000 eurokoa da. 2015ean egin nahi diren beste inbertsio guztiak aurrera eramateko ordea, estalpea renting bidez egitea pentsatu du udalak. “Renting-ak inbertsioa zatika ordaintzeko aukera ematen du, zehaztu gabe daukaguna, urtero ordaindu beharreko kuota da. Gutxienez 15.000 euro izango dira aurtan”. Estalpeak herriko gabezia handi bati irtenbidea

emango dio. “Euri egunetan, egoteko leku bat eskainiko die adin ezberdinetako herritarrei. Eta urtean zehar egiten diren ekitaldie ere aterpea emango die. Finean, leku bat gehiago irabaziko dugu, eta hau herriaren erdigunean”, azpimarratu du Luengok. 300 metro karratutik gora izango ditu estalpeak. Barandilaz inguratua dagoen eremua hartuko du, eta argitasuna sartzeko altuera ezberdinak izango dituen metakrilatozko sabaila izango du. Iraileko festetarako erabilgarri egotea da udalaren asmoa.

ERREPORTAIA

Atxulondoko igogailua

Urgentziatzko beharrak aipatzean, Atxulondoko igogailua jarri du adibide gisa

Pedro Mari Otaño eskolako parkea

Iragan urteetako beste eskaeratako bat izan da, Pedro Mari Otaño eskola-

zurkil Goiko parkeari eman genion, Goian jolas parkerik ez baitzegoen iaz berria jarri genuen arte" arrazoitu du alkateak. 40.000 euroko aurrekontua dute eskolako

«170.000 euroko aurrekontua du Atxulondoko igogailuak»



ko umeen nahiak asetuko dituen parkea osatuz". Lan hauek, ikasturtea amaitu ostean egitea aurreikusten da.

Zizurkil goiko plaza eta etxebizitzak

"Plaza Etxeberri ondoko etxebizitzaren proiektua erabaki arte ezin genuen gure kasa plazan lanak egiten hasi. Ez du zentzurik plazari lur berria eman eta gero berriro haustea etxebizitzak eraikitzeko lanengatik". Lur jabea eta enpresa promotorea akordio batera iritsi dira, eta akordio horren ondorioz, 7 etxebizitza egingo dituzte. "Aitortu beharrean gaude, Pedro Mari Otaño plazaren berrikuntza sartuta geratu zaigun arantza izan dela, baina alde onari begiratuz gero, etxebizitza berrien eraikitze lanak baliatuz, plazak hasieran pentsatzen genuena baino eraldaketa handiagoa izango du", dio alkateak. "Zuhaitza ere bota egin behar da, horrek zulo handia egitea eskatzen du eta honenbestez, plazaren lurra erabat berritu beharko da". Lan hauek etxebizitzak eraikitzeaz amaitzen direnean egingo dira. Bien bitartean, plaza mugatu da, auto gidariak ibilgailua egokitutako aparkalekuetan uztera ohi-tzen joan daitezke. Izan ere, plaza berrian ezingo da auto-rik aparkatu.

Joxe Mari Luengok. "Barkamenak eskatu nahi dizkiegu herritarrei, Atxulondoko sarrera ez baita egokiena izan, baina udalaren diru kontuek ez zuten obra hau egitea uzten, eta urte hauetan era honetako inbertsioetarako instituzioek eskaintzen zizutzen diru-laguntzak ere oso murrizak izan dira", arrazoitu du. Aurten ordea instalakuntza gastuen %50 dirulaguntza bidez finantzatzea lortu dute. Guztira 170.000 euroko aurrekontua du. Igogailuarekin batera, eraikinaren barnetik eskailerak eta komun publikoak egingo dira. Kultur etxearen funtzionamendua ahalik eta gutxien oztopatzeko, obra hauek udarako hilabeteetan egingo dira.

ko jolas parkea berritzea. Aurrez azaldutako arrazoi berarengatik atzeratu da egitasmo hau ere. "Legegintzaldian zehar, herrian ditugun jolas parkeak hobetzen eta berriak sortzen joan gara. Lehentasuna, Zi-

jolasgunean egin nahi dituzten egokitzapenak: "Lurra ez dago egoera onean, altxata dago, arriskutsu; beraz lur berria jartzea da asmoa. Horrekin batera bi jolas berri ere gehituko ditugu, era honetan, adin ezberdineta-



Beste inbertsioak

Inbertsioa	Azalpena	Aurrekontua
Herri baratzak	Azken portu atzean egingo dira.	45.000 € (40.000 € diru laguntza)
Danenako aldagelak	Eliza atzean egokituko diren bi aldagela prefabrikatuak.	40.000 €
Villabona-Zizurkil oinezko zubia	Oinezkoak ez irristatzeko tratamendua eta argiztapena	2.5000 € (Zizurkilen zatia)
Fraisoroko bidearen konponketa	Laborategi atzeko bidea asfaltatzea. Villabonarekin erdibana.	5.500 € (Zizurkilen zatia)
Abeletxeko bidearen konponketa	Portxetatik Abeletxeko kruzerraino asfaltatzea.	70.000 €

Diru kontuak denon eskura

Beste urte batez Zizurkilgo Udalak herritar guztiei helarazi dizkie Udaleko diru kontuen inguruko xehetasunak

AZKEN 3 LEGEALDITAN ESKATUTAKO MAILEGUAK
Prestamos de las tres últimas legislaturas

ESKAERA URTEA año de inicio	ALKATETZA alcaldía	MAILEGUA (€) préstamo
2003	PNV	495.035€
2004	PNV	731.185 €
2005	PNV	238.305 €
2006	PNV	116.000€
2007	PNV	596.770 €
2008	PNV	514.500€

berregiten



Zizurkilgo aurrekontuak 2015
Kontuak garbi
Las cuentas claras



Kontuak garbi
Las cuentas claras

ETXERA?
Gestimiento de Zizurkil

INTZIRARIOAK
Asesoramientos financieros

CAPITAL
Iniciativas
Iniciativas de capital

ZUZENEKO
ZERGAK
Impuestos directos

ZEHARKAKO
ZERGAK
Impuestos indirectos

TASAK ETA
BESTELAKO SARRERAK
Tasas y otros ingresos

Kontuak garbi
Las cuentas claras

Euro

3.000 €
6.820 €
1.570 €
1.250 €
4.000 €
54.910 €
1.610 €
2.400 €
3.200 €
2.200 €
1.000 €
1.000 €
1.050 €
500 €

400 urte

Zizurkildarrak 400 urtez atzera begira jarriko

400 urte bete dira aurtén Tolosako auzo izateari utzi eta Zizurkilek hiribildu izaera lortu zuenetik. Urteurrenaren aitzakian, Zizurkilen iragana ezagutaraztea eta herri nortasuna indartzea helburu duen egitaraua prestatu du Kultura batzordeak. "Urtean zehar antolatzen ditugun kultur ekintzen ildotik, Maiatza Saltsan programazioa ere, herritarren parte hartzearekin osatu nahi izan dugu iragan lau urte hauetan. Baina aurtengo Maiatza Saltsan harago joan gara: Zizurkil herriaren aitortza gogoratu eta ospatu nahi baditugu, ezinbestean zizurkildarrekin osatu behar genuen programazioa", azaldu du Alaitz Ormazabal kultura zinegotziak. "Gauzak honela, maiatza guztiko egitarauan herritarrek dira protagonista. Kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak, mendi ibilaldiak, ikuskizunak... den denak, zizurkildarrek eginak zizurkildarrentzat".

Maiatzak 16, Herri antzerkia

Herritarren parte hartzearen adibide garbiena maiatzaren 16an taularatuko den Herri antzerkia da. "Ilusio handiarekin ari gara ikuskizun hau prestatzen. Umeak, jubilatuek, dantzariak, musikariak, abeslariak, aktoreak, bertsolariak, diseinatzaileak, jostunak... 100 herritar inguru dira Iraitz Lizarraga aktore zizurkildarren gidaritzapean era batera edo

bestera ikuskizunean parte hartuko dutenak", dio Alaitzek. Antzerkia maiatzaren 16an, larunbata, gaueko 22:30etan taularatuko da Joxe Arregi Plazan. Euria eginez gero berriz, Zizurkil Goiko Intxaur frontoian izango da. "Ikuskizunak 400 urte hauetako lau garai edo gertaera izango ditu ardatz, musikaz, dantzaz eta antzerkiak kontatuko direnak. Horrelakoak ez dira urtero antolatzen, eta gainera, oso itxura ona du. Horregatik, herritar guztiak animatu nahi ditut berau ikustera", luzatu du gonbita.

Apirilak 28, hasiera

Maiatzean sartu aurretik hasiko da aurtengo egitaraua. Apirilaren 28an, Teodoro Hernandorena Kultur Taldeak, "Zizurkil 1615, hiribildu baten eraketa" liburua aurkeztuko du arratsaldeko 19:00etan Atxulondo Kultur Etxean. Liburuaren aurkezpenean, 1615. urtetik gaur arte herriak izan duen bilakaera historikoaren zertzelada batzuk azalduko dituzte, eta bidez batez, zabalik geratuko da herriaren historiari buruzko erakusketa didaktikoa. "Esan bezala, gure helburuetako bat Zizurkilen iraganaren nondik norakoa ezagutaraztea da, eta Hernandorena Taldeak egin duen lana baliatuko dugu horretarako. Liburua eta erakusketa dibulгатiboak dira, lerro nagusietan eta ulertze-

ko modu errazean kontatzen saiatu baitira. Lan bikaina egin dute orain ere, eta eskerrak eman beharrean gaude", gehitu du Ormazabalek, Erakusketa maiatza osoan zabalik egongo da, eta kultur ordezkariak bertara gonbidatu nahi ditu herritarrek. Aurreratu duenez, orain arte erakutsi gabeko dokumentu originalen irudiak, edota Tolosarengandik independentizatzeko Zizurkilgo etxe bakoitzak ordaindu zuen diru kopurua jasotzen duen taula biltzen ditu besteak beste erakusketak.

Maiatzak 9, oinez Zizurkil ezagutuz

400 pauso, herria ezagutuz ekimena hilabeteko beste ekimen garrantzitsu bat izango da. "Lau ibilbide ezberdin antolatu ditugu: Bi Elbarrenatik habiatzen direnak, eta beste bi Goian hasten direnak; horietatik bana distantzia motxe-koak eta errazak dira, umeekin egiteko modukoak; beste biak aldiz, distantzia luzeagokoak dira. Oinez, korrika, bizikletan... egin daitezke. Ezaugarrien arabera, ibilaldi bakoitzak irteera ordu ezberdina izango du. Baina iritsiera ordua eta lekua berberak izango dira kasu guztietan: Pedro Mari Otaño plazan amaituko dira denak, eguerdiko 13:00etan. Trikitixa eta erraldoiekin egingo zaie ongi-etorria ibiltariei, eta indarrak berreskuratzeko herri bazkaria egingo da gero",

geroago...

ko dira aurtengo Maiatza Saltsanen.



9

azaldu du Ormazabalek. Ibilbide ezberdinen bidez, helburua herria ezagutzea da, eta noski, festa giroan ondo pasatzea ere bai. Izan ere, herri bazkariaren ostean, festa iluntzera arte luzatuko da Guggaz taldearen erromeriarekin. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du, eta udalak

sagardoa, kafea, mahaia eta aulkiak jarriko ditu.

... eta askoz gehiago

Ekintza nagusiez gain, beste hamaika gauza izango dira Zizurkil en Maiatza zehar. Esate baterako, 17an Nesken Gipuzkoako Txirrindulari Bira iritsiko da Zizurkilera; 23an, Orio eta

Loatzo musika eskolen arteko banden topaketa egingo da; 29an, Nerea Barriola soprano zizurkildarrak kontzertua eskainiko du Arantzazuko amaren elizan; 30ean senidetze eguna izango da Villabonan; eta 31ean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioa jokatu da Atxulondo

kultur etxean.

Amaitzeko, era batera edo bestera Maiatza Saltsanen prestaketan parte hartu duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie kultura batzordeak: "Egitarau anitza eta kalitatezkoa osatu dugu denon artean, goza dezagun denon artean!"

400 años después...

Este año se cumplen 400 años desde que Zizurkil se independizó de Tolosa y obtuvo el título de villa. La programación de Maiatza Saltsan se centrará en este aniversario. "El objetivo es dar a conocer la historia de Zizurkil y reforzar así la identidad como pueblo. Para ello, hemos preparado un programa en el cual los protagonistas son las personas de Zizurkil. Es una programación hecha por los zizurkildarras

y para los zizurkildarras", comenta Alaitz Ormazabal, concejala de cultura.

El plato fuerte será la obra de teatro que se estrenará el 16 de mayo a las 22:30 en la plaza Joxe Arregi (en caso de lluvia en el frontón Intxaur de Zizurkil Goia). "Alrededor de 100 vecinos y vecinas están ensayando con ilusión la obra que representará cuatro acontecimientos de estos 400 años", comenta Ormazabal. La concejala ha invitado

a todos y a todas al estreno ya que "no todos los años se preparan actuaciones como esta, y además tiene muy buena pinta".

Otro día a reseñar es el 28 de abril. A las 19:00 de la tarde se presentará el libro "Zizurkil 1615, hiribildu baten eraketa" que resume la historia de Zizurkil desde aquel año hasta hoy. Además, se inaugurará la exposición que recoge documentos históricos de la villa.

También es de destacar las diferentes rutas que se han marcado en el municipio con la intención de realizar recorridos el 9 de mayo. Se han preparado 4 rutas diferentes, que partirán en horas y de lugares diferentes, pero que terminarán al mismo tiempo y en el mismo punto; es decir, a las 13:00 en la plaza Pedro Mari Otaño.

Todo esto y mucho más en Maiatza Saltsan.

Gaztezulo, gaztetxoen gune berria martxan jarri du Udalak

Atxulondo kultur etxean du kokagune berria



Izaskun Sarasola eta Aratz Alkorta

Gaztezulo berrituak lehen egunak ditu martxan. "Gu Udalera sartu ginenean enpresa batek kudeatzen zuen Gaztezulo, eta ikusi genuen herriko gazte guztiengana iristeko zailtasunak zituela, ez geunden gustora zerbitzuarekin. Uste dugu honelako zerbitzuen ardura Udalak berak eraman behar duela eta horrela proiektu berria hasi ginen lantzen, irekiagoa izango zena", azaldu du Aratz Alkorta gaztedia zinegotziak. "Helburua herriko gazteak herrian txertatzeko proiektu bat egitea izan da eta horretarako lokala ere aldatu behar zela ikusten genuen. Argi genuen plaza inguruan behar zuela izan eta jubilatuen lokala libre

geratzean, egokia izan zitekeela iruditu zitzaigun". Proiektua definituta, deialdi publikoa egin zen eta Izaskun Sarasola hezitzaile zizurkildarra izan da aukeratua Gaztezuloren ardurar eramateko.

Adinka banatuta

9 eta 17 urte bitarteko gazteetan pentsatutako zerbitzua da. "Momentuz bi taldeetan banatu ditugu eta bakoitzarentzat egun eta ordu ezberdinak jarri ditugu (*Ikus taula*) baina irekia dago beharren arabera aldatzera" azaldu du Sarasolak. Zizurkil herriaren berezitasuna azpimarratu du hezitzaileak. "3 eskola daude. Ikastolakoak 7 urterekin Villabonara joaten dira eta beste bi eskolakoak ere 12 urterekin Villabonara doaz. Herrian bertan ere, Goikoek bizi gehiena bertan egiten dute, Otaño-

koek eskolan dute jolasgunea, Ikastolan ere bai. Orain arte gune nahiko bereiztuak ziren eta hori erronka da". Egoera hori aldatzeko laguntza izango da kokagune berria. "Plaza berriarekin giro berria dago: Arratsaldeetan eskola ezberdinetakoko jendea elkartzen da, futbol zelai berria, tabernak, kultur etxea... Bizitasun handia hartzen ari da herriaren erdigunea eta guk hemen egonda, hori baliatu behar dugu. Nahi duguna da Zizurkilgo nerabeek euren herrian bertan txoko bat izatea hain berezia den adin horretan"

Aukera ugari

Atxulondoko lokalak aukera ugari ematen ditu: 2 ordenagailu, pin poneko mahaia, telebista interneteko konexioarekin, bi sofa, mahaia... "Eroso sentitzeko. lagunekin egote-

Ordutegia:

9-11 urte

Astearte eta ostegunetan
16:30-19:30

12-17 urte

Ostiralean 17:00-20:00
Larunbata
16:30-19:30

ko, harremanak egiteko lekua da. Helburua da gazte horiek euren buruarengan konfiantza garatzea eta bide batez, herrian parte hartzera bultzatzea, festetan edo bestelako ekintzetan. Herri sentimentua garatzea ezinbestekoa da, Zizurkilen beste herri batzuetan baino zailagoa baita lehen aipatutako ezaugarriengatik." Nahi duen oro animatu du Sarasolak Gaztezulo zerbitzu berritua ezagutzera. Anima hadi gazte!

Gaztezulo, nuevo espacio para los jóvenes

El ayuntamiento ha puesto en marcha el renovado servicio de Gaztezulo. "El anterior estaba gestionado por una empresa y creíamos necesario un cambio, un servicio más abierto y con un local más apropiado", ha explicado el concejal de juventud Aratz Alkorta. Se

redefinió el proyecto y mediante un concurso público se ha contratado a la educadora zizurkildarra Izaskun Sarasola. Sarasola explica las características del nuevo Gaztezulo. "Está dirigido a los jóvenes entre 9 y 17 años. Hemos dividido los horarios según las

edades en 2 grupos (*ver tabla*). El objetivo es que en la misma plaza tengan un local donde sentirse cómodos en esa edad tan especial. Un local donde se trabajará su autoestima e intentaremos hacerlos partícipes en las actividades de Zizurkil".

Zizurkil ere, euskahaldun!

Martxoaren 21ean igaro zen Korrika Zizurkildik. Goizeko 9ak izateko minutu eskas geratzen zirela pasa zen herritik, Villabonatik Ubarrera sartuz eta Adunako aldaparako Zizurkil zeharkatuz. Zizurkilgo hainbat eragilek hartu zuten parte: Urkamendi Elkartea, Zizurkilgo Ezker Abertzalea, Erraldoiak eta Herri Antzerkia, Danena Kirol Taldea, Zubimusu Ikastola, Pedro Mari Otaño eskola, San Millan esko-

la, Ziotza Kirol Elkartea, Bukalai Dantza Taldea eta Txepetxa Gazte Asanblada.

Zizurkilgo Udalak ere bat egin nahi izan zuen euskahaldun uholdearekin. Euskahalduntze eta euskalduntzeari babesa erakutsiz, Udalak, Joxe Mari Luengo ordezkari zuela, euskara ikasten ari diren atzerriarrek elkarbanatu zuen lekukoa.



Danena kirol taldeko 2 gaztetxo



Urkamendi elkarteak egin zituen lehen metroak.

11



Ezker abertzaleak ere jarri zuen bere alea.



Ziotza elkartearen kilometroa 2 pala jokalarik egin zuten.



Irudi ikusgarria eskaini zuten erraldoi eta buruhandiek.

HERRITARREN TXOKOA

ENEKO AGIRRE



“Txakur Krossaren inguruan lan egin beharra dago, gauzak modu egokian egiteko”

Donostiatik Zizurkilera etorri zen Eneko Agirre duela hiru urte. Punta-puntakoa kirolaria da mushingean; izenez baino izanaz zertxobait ezagunagoa zaiguna.

Zer da mushinga?

Txakurrek tiratutako kirola da. Kategoria asko daude mushingaren baitan, eta ezberdintasun handia dago horiek praktikatzeko eremua eta distantzia aintzat hartuta. Elur zein lur gainean egin daiteke: elurretan lera edo bizikleta erabiliz, eta lurlean gurpildun lera, trizikloa, bizikleta edo patinetea erabiliz edo korrika eginez. Txakur kopurua ere ezberdina da.

Nola entrenatzen duzu?

Irailean hasita, bizikletan edo patinetean entrenatu dut txakurrekin. Goizean goiz edo gauean entrenatuz, tenperatura oso garrantzitsua baita txakurrentzat: 16 gradutik gora ez da komeni txakurrak entrenatzera ateratzea, asko berotzen baitira.

Zure modalitatea egiten duen jende asko al dago hemen?

Ez. Txakur krossarena

izan da booma hemen. Jende asko aritu da ikusten gauzak ondo nola egin eta hala ari dira, baina asko daude sekulako astakeriak egiten: korrikalariak txakurrari tiraka, txakurra ezinean, eguraldi beroarekin entrenamenduak arratsaldeko bostetan... Txakur krossaren inguruan lana egin beharra dago; hor falta da zerbait heziketa edo transmisio aldetik.

Alemanian ospatutako Mundu Txapelketan izan zinen eta beste herrialdeetan nola bizitzen duen ikusteko aukera izan zenuen. Zer moduzko esperientzia?

Sekulakoa izan zen. Hemen kirol minoritarioa da eta ez dago koordinaziorik Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako federazioen artean. Guk, korrikalariok antolatzen dugu hemengoa: antolatu, korrika egin eta sariak eman. Espainiakoan, berriz, gauzak ez dira gehie-

gi zaintzen: esate baterako, Baqueiran lehena helmugaratu nintzenean, helmuga orduan ari ziren jartzen. Frantziara Europakora eta Alemaniara Mundukora joatean, ordea, ez genuen ezertaz arduratu behar izan, sekulako arreta eskaini ziguten antolatzaile, albaitari eta ikustera hurbildu ziren milaka pertsonen. 8 bat joan ginen hemendik eta bi domina ekarri: biak Gipuzkoara. Itoiz Armendariz Munduko Txapeldun bere modalitatean eta Andoni Azpillaga, bigarren. Beste herrialdeetan txakurrak prestatu eta entrenatzen gu baino askoz hobeak ez direla erakutsi dugu aurtengoan, eskiatzen teknika hobe izan dezaketen arren.

Hurrengo helburuak?

Denboraldia amaitu dugu jada. Abendura bitarte lurlean aritu naiz eta gauzak ondo atera zaizkit, Euskadiko Txapelketan zein Espainiakoan. Abenduaren

2ra arte lurlean entrenatuko dut berriz, eta gero ea Espainiakoan ere parte hartzen dudan. Elurretan ere, Espainiako Txapeldun atera naiz eta Europako Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu dut: Norbegian izango da eta ikusiko dugu joateko aukerarik ote daukagun.

Esaiguzu...

... herriko pertsona?

Aitziber Ibarbia. Sekulako kirolaria da eta aitortza zor zaio.

... herriko lekua?

Atxulondo, baina ez plazako taberna. Andatza azpian dagoena.

... zer dago faltan?

Zizurkil goi eta behekoen arteko lotura handiagoa.

... eta soberan?

Zizurkil goira zatozela, bi-dean dauden lan itsusi horiek (AHT).

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.